



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 30a

106. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duena (4. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (10. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (10. or.).

—Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (10. or.).

—Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (11. or.).

—Foru Lege proposamena, terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (11. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tratu txarrei aurrea hartze aldera nazioarteko hitzarmenetan jasotzen diren neurriak –legegintzakoak, juridikoak nahiz administratiboak– har ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Goizuetan eta Aranon larrialdietako zerbitzua laguntza etengabeko gune baten bidez eman dadin Goizuetan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berriozarko osasun etxea handitu dezan eta lehendik dagoen proiektua berreskura dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala gara ditzan Eskubide Sozialen Gutun Baterako 9/1999 Foru Legean aurreikusitako erregelamenduak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nazio Batuen Erakundearen GAP programa aplikatu dezan Nafarroan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen oinarritzko barrutia sor dezan Aiegin. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Adingabearen Nafarroako Kontseilua sor dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar adina kreditu-lerro ezar ditzan bizibiderik gabeko familiei laguntzeko, konprometitutako beste kontusailletako finantzaketa murriztu gabe. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren hitzarmen bat egin dezan IKArekin eta AEKrekin, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko egiten duten lana dela eta. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal eta interesik gabeko edo mailegu publikoko lerro bat abiaraz dezan udalentsat. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arte Garaikideko Huarte Zentroan abian jarri nahi den proiektua zehatz dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urteko txostenetan jaso ditzan laguntza teknikoaren eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (24. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua premiatzen da lankidetzaren bide bat abian jar dezan Huescako Diputazioarekin, Nafarroan ere ezartzeko ondare kulturalaren informaziorako sistema bat. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (25. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Abaunzko haitzuloaren sarbideak eta barnealdea txukundu ditzan eta neurriak har ditzan ager daitezkeen aztarnak behar bezala zainduko direla ziurtatze aldera. Mozioa Erretiratzea (25. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Erroko tunelaren proiektuari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Musikaren Plan Zuzendarirako kontusailari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Espainiako Arte Garaikidearen Institutuko profesionalek Nafarroako arte garaikideari buruz duten iritzia buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Tecal 40 enpresa zenari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (28. or.).
- Galdera, jakiteko zertan diren Espetxeetako Erakundearekiko izapideak, Iruñeko espetxean mediku psikiatra bat egotea ziurtatze aldera. Osasun Batzordean izapidetzea (29. or.).
- Galdera, jakiteko ea 2009. urtea amaitu aitzin elebitan errotulatu egonen den Baluarte. Galdera erretiratzea (29. or.).
- Galdera, “Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko sistema” izeneko kontusailari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Hogeita bost urte baino gutxiago izateagatik oinarritzko errenta ukatu den kasuei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (30. or.).
- Galdera, Zangozako zubi berriaren obrak hasteko eta bukatzeko aurreikusi diren datai buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (30. or.).
- Galdera, ingurumen arloko arriskuei dagokienez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi dituen ekintzei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (31. or.).

- Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak Adingabearen Nafarroako Kontseilua sortze aldera egin dituen jarduketei buruzkoa, Javier Monzón Romé jaunak egina (32. or.).
- Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak adingabeak babesteko baliabideak handitze eta hobetze aldera egin dituen jarduketei buruzkoa, Javier Monzón Romé jaunak egina (33. or.).
- Galdera, Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoarekin Iruñeko espetxeko hezkuntzari buruz sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren jarraipena egiteko batzorde mistoari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (34. or.).
- Galdera, Leringo Udalak 173 zuhaitz moztu izanari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (35. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2009ko urriaren 19an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko azaroaren 23ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Maiatzaren 14ko 812/1999 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen esku geratu ziren Foru Komunitateko Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen arloko eginkizun eta zerbitzuak.

Ondoren, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatu zuenak, zera ezarri zuen zortzigarren xedapen gehigarrian: "Foru lege honek Justiziako Administrazioaren zerbitzuko kidegoetako karrerako funtzionarioei buruz dituen xedapenak Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko dira, Konstituzioaren 122. artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa ezarritakoari jarraikiz." Xedapen horrek berretsi eta bermatu egiten du Nafarroako Foru Komunitateak funtzio publikoaren arloan dituen eskumen historikoen erabilera.

Konstituzio Auzitegiak irailaren 20an emandako 140/1990 epaian aitortu zuen Nafarroako Foru Komunitateak funtzionario publikoen gainean arauak emateko eskumen osoa duela; muga bakarra oinarritzko eskubide eta betebeharrak errespetatzea da: "(...) Estatuak funtzionario publikoen estatutu araubidearen gainean ematen dituen oinarritzko legeen aurreikuspen guztiak ez dute eskumenaren erabilera mugatuko; «oinarritzko eskubide eta betebeharrak» buruzkoek baino ez dute eginen." Horregatik, lege arau honek Nafarroan Justizia Administrazioari atxikitako funtzionarioen lan baldintzen araudia babesten du –horren bidez guztiz sartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan–,

eta saihestu egiten du funtzionario horien araubidea osatzeko ematen ahalko diren lege horren mailatik beherako arauak zuzenbidearen arabera-koak ote diren jakiteko zalantzak sortzea etorkizunearan, horrelako arauak inpugnazioak eragin baituzten alde aurretik auzitegietan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak ordezkatzen dituzten erakunde sindikalek 2006an sinatutako akordioan aurreikusten zen Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak foru lege baten aurreproiektuaren zirriborroa aurkeztuko zuela, erakunde sindikal sinatzaileekin negoziatzeko; hartan planteatuko zen Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuan sartzea, betiere Justiziako zerbitzu publikoa behar bezala emateko espezifikotasunak barnean hartuz. Aipatutako zirriborroa aurkeztu zen eta erakunde sindikalek bermatu zuten; dena dela, erakunde sindikalek zenbait xehetasun zuzendu zituzten, testuan sartu direnak.

Foru legearen helburua da, funtsean, titulu berri bat (VI.a) gehitzea Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuak beste kidego batzuetako langileak ere barnean hartzeko ondorio guztietarako, langile horien kidego nazionalen izaeraren eta Justiziako zerbitzu publikoa ematearen ondoriozko salbuespenak salbu. Hona hemen aipatutako kidegoak: Auzitegiko Medikuen Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoa eta Laguntza Judizialeko Kidegoa. Aldez aurretik, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina egoera berrira egokitu da, behar bezalako integrazio baterako beharrezko aurreikuspenak eginez. Horrela, langile batzorde bat eta negoziazio kolektiboko mahai sektorial bat aurreikusten ditu, Administrazioaren beraren berariazko beste talde batzuen modura.

VI. titulu berria hamabi artikuluk osatzen dute, eta bertan garatzen da Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen integrazio erabatekoa, Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan lan egiten duten gainerako langile ez-berariazkoiei aplikagarri zaien estatutuan.

Lehenik, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileria osatzen duten kidego eta eskalen Estatutu Juridikoa definitzen da, Botere Judizialaren Lege Organikoan bildu eta Justiziako zerbitzu publikoa eraginkortasunez eta egoki emateko

berez behar diren oinarrizko eskubide eta betebeharrak guztiz errespetatuz.

Beste alde batetik, foru legeak ezartzen du Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen jardueraren antolamendua Estatuko legeak arautzen jarraitzea, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren II. tituluko V. kapituluan ezarritakoari utzi gabe. Lege testua etorkizuneko foru lege bati lotuko zaio, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzio publikoko lanpostuen antolamendua, hautapena, barne sustapena eta betetzea arautzeko; eta, legezko arau hori argitaratu arte, lanpostuak kidego eta eskaletan antolatzea, hautapena eta lanpostuak betetzea unean-unean indarra duten Estatuko xedapenek arautuko dituzte.

Adierazten du, halaber, langile horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan justizia arloan eskumena duen departamentuaren mende egonen direla organikoki; dena dela, funtzionarioak zein bulego edo zerbitzuri atxikita dauden, hartako zuzendari edo buruaren mende egonen dira funtzionalki.

Foru legeak Nafarroako Gobernuari eta Foru Komunitateko Administrazioari esleitzen die lan publikoaren eskaintza eta Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko kidegoetan sartzeko deialdiak onesteko ahalmena.

Kidegoek Estatuan zein kanpoan mugitzeko duten aukerari utzi gabe eta Estatuko prozesuekin behar bezalako koordinazioa bermatuz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hutsik dauden lanpostuak betetzeko barne mugikortasuneko prozesuak deitzeko ahalmena du. Halaber, zerbitzua ahalik hobekien emateko behar diren langileak birbanatu, berrantolatu eta birkokatze prozesuak egiteko ahalmena du, betiere horretarako onesten den araudia betez. Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak Foru Administrazioaren oinarrizko egituretan guztiz integratuta daude; izan ere, Justizia Administrazioetik kanpoko lanpostuak betetzeko eskubidea aitortzen zaie, eta, halakoe-tan, lanpostu horien araubidearen mende daude.

Foru legeak osagarri bat aurreikusten du Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek beren eginkizunetan jartzen dituzten dedikazio bereziaren eta errendimendu apartekoaren eta beste organo judizial batzuei ematen dieten laguntzaren ordain gisa. Osagarri hori aldi baterako izanen da, kasu bakoitzean ezarritako plangintza eta helburuekin bat.

Justiziako zerbitzu publikoa emateko berezko salbuespenak salbu, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko gainerako langileen-

tzat oro har onesten diren lan egutegia eta lanaldia izanen dituzte, guardia zerbitzua arautzen duen berariazko araudia zorrozki betetzeari utzi gabe.

Lege testuak Justiziako funtzionarioen kidegoen bateraezintasun arrazoen katalogo bat du, Estatutuak gainerako langile publikoentzat oro har ezarritakoa osatzen duena.

Foru legeak Justizia Administrazioaren esparruko lanpostuen aldi baterako betetzea arautzen du, administrazio araubidean kontratatzearen bidez.

Xedapen gehigarri bakarrak Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioak Nafarroako Foru Administrazioaren kasuan kasuko mailan sartzan ditu eta konpentsazio pertsonal eta iragankorra ezartzen du, aurreko araubideari jarraikiz guztira jasotzen zituzten ordainsariak foru lege hau aplikatzearen ondorioz dagozkienak baino handiagoak hartzen dituztenentzat.

Bigarren xedapen iragankorrak Estatuko indarreko araudia aplikatzeko agintzen du, harik eta 117. artikuluan aipatutako foru arauak eman arte.

Halaber, hirugarren xedapen iragankorrean, foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Justizia Administrazioan lanean ari diren aldi baterako funtzionarioei aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen da.

Azken finean, testuak justiziako langileak Nafarroako administrazio publikoetako gainerako enplegatu publikoen lege esparruan sartzan ditu eta antzeko funtzionamendu araubide bat ezartzen du, justiziako zerbitzu publikoa emateari berezkoak zaizkion egokitzapen eta berezitasunei utzi gabe.

#### **Artikulu bakarra.** Testu Bategina aldatzea.

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatu eta honelaxe geldituko da:

Bat. 82. artikulua 1. idatz-zatiaren azkeneko lerroaldea aldatu eta honela geldituko da idatzita:

“Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan hiru langile batzorde hautatuko dira: bat, unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioentzat; beste bat, Justiziako Administrazioaren zerbitzuko langileentzat; eta beste bat, Administrazioaren zerbitzuko gainerako funtzionarioentzat.”

Bi. e) letra erantsiko zaio 83.3 artikuluari. Hauxe adieraziko du:

“e) Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak.”

Hiru. VI. titulua gehituko da. Hauxe esanen du:

#### “VI. TITULUA

#### Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak

109. artikulua.

1. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko Auzitegiko Medikuen Kidegoko eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidego eta eskaletako langileak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan sartuko dira.

2. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioak titulu honen xedapenek arautuko dituzte eta, hark arautzen ez duen guztian, estatutu honen gainerako xedapenei eta hura garatzen duten arauari jarraituko zaie.

3. Edonola ere, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen araubide juridikoak Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan bildutako funtsezko eskubide eta betebeharrak errespetatuko ditu.

110. artikulua.

Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzio publikoko lanpostuen kidego eta eskalaren antolamendua, hautapena, barne sustapena eta betetzea foru lege bidez arautuko dira.

111. artikulua.

Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak justizia arloan eskumenak dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Departamentuaren mende egonen dira organikoki, eta langileak zein bulego edo zerbitzuri atxikita dauden, hartako zuzendari edo buruaren mende, funtzionalki.

112. artikulua.

Estatutu honen II. tituluko V. kapituluaren ezarritakoari kalterik egin gabe, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen lanbide jardueraren antolamendua Estatuko araudiak arautuko du.

113. artikulua.

1. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko lan publikoaren eskaintza Nafarroako Gobernuak onetsiko du.

2. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko kidegoetan sartzeko deialdiak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio organo eskudunak onetsiko ditu.

3. Ondorio horietarako, justizia arloko eskumenak dituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko Departamentuak Justizia Ministerioarekin koordinatzeko beharrezkoak diren tresnak antolatuko ditu.

#### 114. artikulua.

1. Mugikortasun nazionalari kalterik egin gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere funtzionarioak mugitzeko prozesuak deitzen ahalko ditu, Nafarroako Justizia Administrazioiko bulego eta zerbitzuei atxikitako lanpostuak betetzeko.

2. Mugikortasun prozesu horiek garatzean, esparru nazionalako prozesuekiko koordinazioa bermatuko da, destinoak esleitzeko.

3. Langileak nahitaez birbanatu, berrantolatu eta birkokatze prozesuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lurraldeka multzokatzen ahalko ditu lanpostuak, zerbitzuko premietara ahalik eta hobekien egokitzeko.

4. Nafarroako Justizia Administrazioiko funtzionarioek Nafarroako Foru Komunitatean Justizia Administrazioetik kanpoko lanpostuak eskuratzen ahalko dituzte, estatutu honen II. tituluko IV. eta VII. kapituluetan ezarritakoarekin bat. Lanpostu horietan dauden bitartean, horien araubide berekiri men egin beharko diote.

#### 115. artikulua.

1. Estatutu honetan ezarritako ordainsari osagarriez gain, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek osagarri bat eskuratzen ahalko dute, beren eginkizunetan jarritako dedikazio bereziaren, errendimendu apartekoaren eta beste organo judizial batzuei emandako laguntzaren ordain gisa, arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak ezarritako helburuak beteazari loturik.

2. Osagarri horren zenbatekoak ezin izanen du kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren 100eko 20 gainditu.

3. Osagarri horren esleipena aldi baterako izanen da, kasu bakoitzean alde zuzenetik ezartzen diren helburuak eta plangintza kontuan hartuta. Hori dela eta, kontzeptu horrengatik aldi baterako jasotzen diren zenbatekoek ez dute eskubide lorturik sortuko eta ez dute hurrengo aldiaren egoeran eraginik izanen.

#### 116. artikulua.

Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen lan egutegia eta lanaldia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko

gainerako langileenetara egokituko dira, Justiziako zerbitzu publikoa emateko egin beharreko ezinbesteko aldaketak eginda.

#### 117. artikulua.

1. Nafarroako bulego eta zerbitzu judizialak guardia zerbitzua berariazko araudian zehaztutako baldintzetan eginen da.

2. Guardia zerbitzuari dagokion ordainsaria Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko organo eskudunek finkatuko dute.

#### 118. artikulua.

Estatutu honetan oro har ezarritako bateraezintasunez gain, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek beste hauek ere izanen dituzte:

##### 1. Auzitegiko Medikuen Kidegoa:

a) Beren eginkizunekin zerikusia izan dezaketen kasuetan partikular gisa parte hartzea.

b) Enpresako mediku funtzioa, aseguru etxetako, edo haietan lan egitea.

c) Edozein peritazio jarduera pribatu.

d) Heriotzako ziurtagiri medikoak jaulkitzea, salbu eta Erregistro Zibilean lan egiten badute, eta bakarrik beren eginkizunak betetzen.

##### 2. Gainerako kidegoak:

a) Abokatutzan, Prokuradoretzan eta abokatu- eta prokuradoreen zerbitzura edota epaitegi eta auzitegietan lan egitea ahalbidetzen duen beste edozein lanbidetan aritzea.

b) Aseguru agente eta horietako edo aseguru etxe bateko langile izaera izatea.

c) Irabazi asmoa duten enpresetako kudeatzaile, kontseilukide edo aholkulari lanpostuak betetzea.

d) Administrazio gestoriako zerbitzuak, bulego horietako titular zein langile gisa arituta ere.

e) Peritazio pribatuko eginkizunak betetzea auzitegi eta epaitegietan.

#### 119. artikulua.

Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioek Mutualitate Orokor Judizialak osatutako gizarte aurreikuspeneko araubidean jarraituko dute.

#### 120. artikulua.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aldi baterako langileak administrazio araubidean kontratatzen ahalko ditu, Justizia Administrazioa-

ren zerbitzuko langileen behar bezala justifikatutako premiei erantzuteko, betiere horiei aurre egiteko langile finko aski ez dagoela egiaztatzen bada.”

### **Xedapen gehigarria**

**Xedapen gehigarri bakarra.** Mailak eta ordainsari osagarriak.

1. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritako ordainsariak jasoko dituzte, honako maila hauei jarraikiz:

- A maila: Auzitegiko Medikuen Kidegoa.
- B maila: Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoa eta Eskala, iraungitzea.
- C maila: Prozesu eta Administrazio Izapidetako Kidegoa eta Eskala, iraungitzea.
- D maila: Laguntza Judizialeko Kidegoa eta Eskala, iraungitzea.

2. Nafarroako Gobernuak, bidezko foru dekretuaren bidez, langile horiei esleituko dizkie dagozkien ordainsari osagarriak, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera.

3. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek, aurreko araubideari jarraikiz urtean guztira jasotzen zituzten ordainsarietako foru lege hau aplikatzearen ondorioz dagozkienak gainditzeko badituzte, konpentsazio pertsonal eta iragankorra jasoko dute, dagoen diferentziaren arabera. Konpentsazio hori haien ordainsarietan gertatzen den edozein gehitzeren bidez irentsiko da; horien artean espresuki sartuko dira haien ordainsari pertsonalei lotutakoak eta oro har onesten diren ordainsari gaurkotzeak.

### **Xedapen iragankorrak**

**Lehen xedapen iragankorra.** Lanpostuen kidego eta eskalak, hautapena eta horiek betetzea.

110. artikuluan aipatutako foru legea ematen ez den bitartean, Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzio publikoko lanpostuen kidego eta eskalen antolamendua, hautapena eta horiek betetzea unean uneko Estatuko indarreko xedapenek arautuko dituzte.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Guardia zerbitzuagatiko ordainsaria.

Guardia zerbitzuagatiko ordainsaria 117. artikuluan adierazi bezala arautzen ez den bitartean, Estatuko arauak arautuko aute.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** Bitarteko funtzionarioak.

1. Foru lege honen aplikazio esparruko langileek, legeak indarra hartzean Nafarroako Justizia Administrazioan bitarteko funtzionario gisa lanean ari badira, “iraungitzea” izaerari eutsiko diote, izendatu zituzteneko data arte edo, bestela, egungo izendapena eragin zuen beharrak dirauen arte.

2. Bitarteko funtzionario izaera mantentzen duten bitartean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio araubidean aldi baterako kontratatutako langileentzat legez eta erregelamenduz finkatutako ordainsariak eta gainerako lan baldintzak aplikatuko zaizkie, foru lege honen xedapen gehigarri bakarreko 3. atalean aipatutako konpentsazio pertsonal eta iragankorra barne (jasotzen zituzten ordainsarietako foru lege hau aplikatzearen ondorioz dagozkienak gainditzeko dituzten kasuan).

### **Azken xedapena**

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Dena dela, Justiziako zerbitzu publikoaren behar bezalako funtzionamendua bermatzeko, ezarritako lanaldia, ordutegiak, oporrak eta baimeak mantenduko dira, aldi baterako, indarra hartzearen urte naturala amaitu arte.





---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

### **Foru Lege proposamena, terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzkoa.**

#### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2009ko urriaren 22an egindako Osoko Bilkuran, terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

### **Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa.**

#### *OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2009ko urriaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

### **Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena.**

#### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2009ko urriaren 30eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposa-

mena 2009ko ekainaren 12ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa.

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2009ko azaroaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Foru Lege proposamena, terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzkoa.

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko urriaren 22an egindako Osoko Bilkuran, terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko azaroaren 23ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tratu txarrei aurrea hartze aldera nazioarteko hitzarmenetan jasotzen diren neurriak –legegintzakoak, juridikoak nahiz administratiboak– har ditzan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita tratu txarrei aurrea hartze aldera nazioarteko hitzarmenetan jasotzen diren neurriak –legegintzakoak, juridikoak nahiz administratiboak– har ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Azken urteotan, Human Rights Watch, Amnesty International, Movimiento contra la Intolerancia eta SOS Arrazakeria elkarteek zenbait txosten egin dituzte, zeinetan berresten baita etorkinek poliziaren eskutik jasandako tratu txarrak eta gehiegikeriak direla-eta jarritako salaketa kopurua izugarri igo dela. Salaketa horiek erakusten dute, baita ere, praktika horiek polizia kidego guztietara zabaldu direla.

2009ko ekainean, SOS Arrazakeria elkarteak urteko txostena aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuko Erakundeekiko Harremanetarako Batzordean. Aipatu batzordean, elkarteko ordezkariak beren kezka adierazi zuten salaketa kopuruaren igoeragatik eta salaketa horien larritasunagatik.

Immigrazioa politikoki erabil daitekeen gaia da, hauteskundeetan irabaziak izateko. Askotan lotzen dira immigrazioa eta delitua, eta horrek laguntzen du modu bidegabean lotzea etorkinak eta delituak. Horren ondorioz, jarduketa baztertzailleetarako haztegi egokia sortzen da.

Arazoari irtenbidea emateko neurririk ez denez hartzen, zigorgabetasun giroa eta tratu txarrei buruzko kasu berriak agertzea sustatzen da; hori dela eta, seriotasunez jardun behar dugu, txostenetan gai horri buruz agertzen diren salaketei entzungor egin gabe.

Beharrezkoa da jarrera prebentiboa hartzea; hala ere, hori ez da inolaz ere hartu behar salaketaren edo mesfidantzaren ikuspuntutik, pertsona guztien, edozein izanda ere pertsona horien administrazio-egoera, giza eskubideen defentsaren ikuspuntutik baizik eta baita funtzionarioek beren eginkizunak betetzen dituztenaren berme gisa ere. Torturak eta bestelako tratu txarrak egon badirela ukatzea eta da ona inorentzat, begiak ixteak ez du eragozten errealitateak bere horretan irautea. Izan ere, gure ardura da inork tratu txarrik edo torturarik ez jasatea bermatzea eta prebentziorako neurri eraginkorrak hartzea.

Horregatik guztiagatik, eta giza eskubideen nazioarteko erakunde eta elkarteek eginiko eskaren ondorioz, eta zehazkiago, SOS Arrazakeria elkartearen azken txostenen jasotako eskarien ondorioz, parlamentu-talde honek erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tratu txarrei aurrea hartze aldeira nazioarteko hitzarmenetan jasotzen diren neurriak –legegintzakoak, juridikoak nahiz administratiboak– har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berariazko jardun-protokoloak zehatz ditzan, poliziak emandako tratu txarrei edo gehiegikeriei buruzko salaketa bat jartzen denean

abiarazteko eta ikerketa azkar, independente, inpartzial eta osoa ahalbidetzeko, Nazio Batuen Erakundeak gomendatu bezala.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gobernuz kanpoko erakundeek salatutako gertakariak eta egoerak iker ditzan.

Iruñean, 2009ko urriaren 16an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Goizuetan eta Aranon larrialdietako zerbitzua laguntza etengabeko gune baten bidez eman dadin Goizuetan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Goizuetan eta Aranon larrialdietako zerbitzua laguntza etengabeko gune baten bidez eman dadin Goizuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Agerikoa da Goizuetan sortutako egoeraren arrazoa dela Oinarrizko Osasun Laguntza Zuzen-

daritzak 2008ko uztailetik Goizuetako laguntza etengabeko zerbitzu kendu izana. Harrezkero, Goizuetan erizain bat egoten da arratsaldeko 15:00etatik aurrera eta medikua Leitzako laguntza jarraituko zerbitzuan egoten da.

Denok dakigu zer distantzia dagoen eta nola-koak diren komunikabideak bi herri horien artean, eta, halaber, badakigu nolakoak diren barreiatze geografikoa eta populazioaren zahartze-maila. Hori dela eta, askotan esan izan dugu Osasun Departamentuak hartutako erabakiak larrialdi medikoen arreta okerragoa ekarriko zuela, kalitateari dagokionez.

Azken gertakarien ondotik, Departamentuak eta kontseilari andreak ez dituzte beren gain hartu beraiek hartutako erabakiaren ondorioak; aldiz, errua beste batzuei leporatzen saiatu dira, bai eskualde horretan diharduten profesionalei bai SOS Nafarroako langileei.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du Goizuetan eta Aranon larrialdietako zerbitzua laguntza etengabeko gune baten bidez eman dadin Goizuetan, eta bertan mediku bat eta erizain bat egon daitezela.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berriozarko osasun etxea handitu dezan eta lehendik dagoen proiektua berreskura dezan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Berriozarko osasun etxea handitu dezan eta lehendik dagoen proiektua berreskura dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Berriobeiti, Txulapain, Atez, Itza eta Berriozarko udalek osatzen duten Berriozarko oinarritzko eskualdeko Osasun Kontseiluak, irailaren 22an eginiko bilkuran, aho batez onetsi zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea hartutako konpromisoa bete dezan eta Berriozarko osasun etxea handitu eta lehendik hasitako proiektua, 2008 geldiarazitakoa, berreskura dezan.

Gure ustez, Departamentuak bere garaian ikusi bazuen beharrezkoa zela Berriozarko osasun etxea handitzea eta hori egiteko erabakia hartu bazuen beharizan batzuen eta plan baten ondorioz, eta ez soilik adabakiak jartzeko asmoarekin edota errentagarritasun politikoa bilatzeko asmoz, beharizan horiek bere horretan jarraituko dute gaur egun, edo behar bada areagotu egingen ziren. Hori dela eta, uste dugu osasun etxea handitzea orduan bezain beharrezkoa dela.

Gastuak lehenesterakoan, NA-BAI parlamentu-taldeak uste du, eta hala esan izan dugu, oinarritzko osasun laguntza dela lehentasuna duena, eta merezi dituen baliabideak eta aurrekontua eskaini behar zaizkiola, osasun zerbitzuaren oinarria baita, eta, aldiz, ez dela egin behar orain arte egin dena, oinarritzko osasun laguntza osasunaren alorreko zoko ahaztutzat hartua izan baita. Dirua behar da azpiegitura berriak egiteko, oinarritzko osasun laguntzaren antolamendu berria ezartzeko, landa eremuko larrialdietako zerbitzuen antolamendu berria finkatzeko, bai eta beste hainbat xedeetarako ere.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Berriozarko osasun etxea handitu dezan eta lehendik dagoen proiektua berreskura dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010eko aurrekontuetan Berriozarko osasun etxea handitzeko kontusail bat sar dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala gara ditzan Eskubide Sozialen Gutun Baterako 9/1999 Foru Legean aurreikusitako erregelamenduak.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala gara ditzan Eskubide Sozialen Gutun Baterako 9/1999 Foru Legean aurreikusitako erregelamenduak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Parlamentuko ekimen baten bidez, Eskubide Sozialen Gutun Baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatu zen. Aldaketa hori adostasunez egin zen eta bertan zenbait erregelamenduren garapena aurreikusten zen. Zehazki, 4.3, 5.1 eta 5.2 artikuluetan eta lehenengo xedapen gehigarriari, lehenbailehen zehaztu beharreko zenbait erregelamendu aurreikusten dira.

Gainera, mozio bat onetsi zen, zeinaren bidez eskatzen baitzen lege horren arauzko garapena egin zedin hilabeteko epean. Agerikoa denez, hori ez da bete.

Arazoa sozialen aurrean, erantzunak azkarra izan behar du, baina, are gehiago, gizarte laguntza zehatz hori behar duten pertsonen beharrian sozialei egokitutako erantzuna izan behar du.

Aipatu legearen kasuan, eginiko ekarpenak bideratuta zeuden legearen artikuluen interpretazioa ahalik eta malguena izan zedin. Horrekin lotuta, bereziki nabarmendu zen, esate baterako, ezarritako adin muga, 25 urtez beherakoei ere xedapen hau aplikatze aldera: "salbuespen gisa, eta espedientean objektiboki justifikatutako arrazoiengatik, familia unitate bat osatzen duten pertsonak prestazioaren onuradun izan ahalko dira, nahiz eta baldintza guztiak ez bete, baldin eta erregelamenduz zehaztuko diren behar larriko egoeretan badaude."

Hau da, lege aldaketak berak ahalbidetzen du, egoera pertsonalek hala gomendatzen badute, oinarritzko errenta ematearen gaineko zenbait baldintza, epe eta muga modu malguan interpretatzea, eta garrantzitsua da hori lehenbailehen gertatzea.

Lege hori onetsi zenetik urtebete iragan da eta, gertatzen ari diren arazo sozialen aurrean, eta detektaturik zenbait kasuetan oinarritzko errenta ukatu egin dela ezarritako adin mugaren ondorioz, premiazkoa da aipatu erregelamenduak arautzea.

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen gara ditzan 9/1999 Foru Legean aurreikusitako erregelamenduak.

2. Nafarroako Parlamentuak Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen du ahalik eta malgutasun handienarekin interpreta dezan Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Legea, gaur egungo egoera ekonomiko eta sozialari ahalik era erantzun egokiena emate aldera.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nazio Batuen Erakundearen GAP programa aplikatu dezan Nafarroan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nazio Batuen Erakundearen GAP programa aplikatu dezan Nafarroan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Maiorga Ramírez Errok eta Patxi Zabaleta Zabaletak Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena:

Nazio Batuen Erakundeak Global Action Plan (GAP) izeneko plana sortu zuen, erakuste aldera pertsonen ohituren aldaketa lagungarria izan daitekeela baliabideen erabilera eraginkorragoa izan dadin, eta, hala, iraungarritasunarentzat baliagarria izan daitekeela.

Global Action Plan (GAP) nazioarteko plan bat da, Nazio Batuen Ingurumenerako Programak sustatua eta Unescok egiaztatua –2005-2014, Garapen Iraungarriko Hezkuntzaren Hamarkada–, eta haren xedea da pertsonen bizi baldintzak hobetzea eta ingurumenean dugun eragina txikitzea, etxean edo lantokian gauzatu daitezkeen ekintza multzo baten bidez.

1992an, Rioko goi-bileraren ostean, GAP plana garatzen hasi zen Holandan eta AEBetan, eta, abian jarri zenetik, 20 dira proposamen horrekin bat egin duten herrialdeak. Gaur egun, mundu osoko 500.000 pertsona baino gehiagok gauzatu dituzte programa horiek, arrakasta handiz. 2003ko erdialdean, Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu zuen Plan de Acción Global para la Tierra elkarrekin. Hitzarmenaren xede nagusia zen herritarrek ingurumenarekin loturiko gaietan duten parte-hartzea areagotzea GAP programaren bidez. Kanpaina Bilbon, Donostian, Gasteizen, Lea-Artibai eta Debagoiena eskualdeetan eta Aguraingo Taldean garatu da. Emaitzak pozgarriak izan dira.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nazio Batuen Erakundearen GAP programa aplikatu dezan Nafarroako Foru Komunitatean.

Iruñean, 2009ko urriaren 20an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen oinarrizko barrutia sor dezan Aiegin.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte zerbitzuen oinarrizko barrutia sor dezan Aiegin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2006ko azaroaren 7an, Aiegiko Udaleko Osoko Bilkurak erabaki zuen Lizarrako Gizarte Zerbitzuetatik bereiztea. Erabaki hori ez zen apertaldi baten ondorioz hartu; izan ere, udalaren ordezkarien Osoko Bilkura hartan azaldu zuten moduan, badira erabaki hori hartzeko pisuzko arrazoiak. Horien artean, laburbilduz, hauek nabarmendu daitezke:

- Lizarrako oinarrizko barrutian gizarte zerbitzuen mankomunitate bat ez egoteak, hura osatzen duten udalen partaidetza duena, zekarren Aiegiko Udalak ez izatea aukerarik erabakiak hartzerakoan, aurrekontuak onesterakoan, eta zerbitzuen eta langileen kudeaketan parte hartzeko aukerarik ere ez izatea, Lizarrakoa baitzen parte hartu eta gai horien inguruan erabaki zezakeen udal bakarra. Aiegiko Udalak ez zuen parte hartzen erabaki organoetan; egiten zuen bakarra zen Lizarrako Udalak biztanleko ezarritako kuotak ordaintzea.

- Lizarrako gizarte zerbitzuek Aiegiri ematen zioten arreta eskasa; izan ere, astean bi ordukoa zen, 1.841 biztanle dituen herria izanik, eta ez zituen betetzen zerbitzu horiek bete beharreko beharrian premiazkoenak eta oinarrizkoenak.

- Zerbitzu horren funtzionamenduak Aiegiko herria bihurtuko zuen Lizarra bezalako herri handi baten luzakina, baina, Lizarrak berariazko arazoak dituen, bi herriak ez ziren bat etorriko ez garatu beharreko programei, ez aurre egin beharreko arazoei ez eta beharrezkoa den arreta denborari dagokienez ere, bi herriek ezaugarri desberdinak baitituzte.

Horrekin lotuta, udalak urtero eskatu dio departamentuari zegokion laguntza, baina departamentuak laguntza ukatu egin dio sistematikoki. Oinarrizko gizarte zerbitzu honek era independentean egiten du lan, eta 3 pertsona ditu, lanaldi partzialean kontratatuta: gizarte langile bat eta etxez etxeko laguntza zerbitzua ematen duten bi familia langile. Gaur egungo egoera sostengaezina izatera iristen ari da alor finantzarioari dagokionez, Aiegi udal txikia baita, eta beharrezkoa da lehenbailehen konponbide bat aurkitzea.

Aurreko ikasturte parlamentarioan plan estrategikoa onetsi zen, zeina Nafarroako gizarte zerbitzuen antolamendurako oinarrizko tresna baita. Plan horretan gizarte zerbitzuen zenbait barruti zehazten ziren, oinarrizko barrutiekin bat datozenak. Orduan proposamenik egin ez genuen arren, mozio hau aurkezten dugunoi arrazoizkoa iruditzen zaigu Aiegiko oinarrizko gizarte zerbitzuak oinarrizko barrutizat hartzea. Barrutia ondoko herriek osatuko lukete: Aiegi, Iguzkitza (Iguzkitza, Azketa eta Labeagako kontzejuak), Villamayor de Monjardín eta hala eskatzen duten eskualdeko herriak.

Halaber, proposamen hori bat dator oinarrizko osasun barrutiarekin eta Gizarte Zerbitzuen abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearekin. Zehazki, foru lege horren 40. artikuluan ezartzen denez, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen lurralde antolaketa honako printzipio hauei lotuko zaie: dezentralizazioa, herritarrengandik hurbil egotea, premia sozialak asetzeko eraginkortasuna, lurralde oreka eta homogeneitatea. informazioaren eta zerbitzuen eskuragarritasuna, eta koordinazioa eta sareko lana.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak arautzen dituen urtarrilaren 16ko 11/1987 Foru Dekretuak ezarri zuen haien mugaketa geografikoa oinarrizko osasun eskualdea izanen zela. Aipatu dekretuak ezarritakoarekin bat, Gizarte Zerbitzuen Foru Legearen 41.2 artikulua ere hori bera ezartzen du.

Halaber, kontuan hartu behar da populazioak hirukoiztu egin dela azken urteotan, eta udalaren aurreikuspenen arabera, goranzko joera horrek jarraitu egingen du datozen urteetan.

Hori guztia dela-eta, hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Aiegiko Gizarte Zerbitzuen

Mankomunitatea sor dezan, eta bertan sar ditzan Aiegi, Iguzkitza (Iguzkitza, Azketa eta Labeagako kontzejuak), Villamayor de Monjardín eta hala eskatzen duten eskualdeko herriak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaur egungo Aiegiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bideragarritasun ekonomikoa ziurta dezan, proposatutako legezko aldaketa egin arte.

Iruñean, 2009ko urriaren 20an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro, Patxi, Zabaleta Zabaleta eta Ana Figueras Castellano

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan..

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 195, 196 eta 197. artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroa-

ko Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan.

Zioen azalpena

2008-2012 urteetarako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren helburua da gizarte zerbitzuen sare unibertsal, bermatzaile eta kalitatekoa garatzea lurralde osoan modu harmonikoan, pertsonen oinarrizko beharrei, eta lehentasunez ahulenei, erantzuteko. Hortaz, Plan Estrategiko honen asmoa da, batetik, hurrengo urteetako gizarte zerbitzuen arloko politiken ildoak ezartzea, eta bestetik sektorea planifikatzeko esparrua izatea.

1. lerro estrategikoak zehazten du beharrezkoa dela herritarren eskubideak eta haiek jasotzen duten arretaren kalitate egokia ziurtatuko dituzten arauak garatzea. Plan Estrategiko honen indarraldian onetsi behar dira jarduera ugari abian jartzea ekarriko duten zenbait gairi buruzko erregelamenduak. Hori guztia egin behar da aipatu planean eranskin gisa jasotako kronogramaren arabera eta bertan finkatutako epeen barruan.

1.1.7. jardueraren arabera, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak garatu behar dira, eta haien osaketa, eginkizunak eta jarduteko esparruak ezarri.

Jarduerak eta ebaluazio-adierazleak ezartzeko kronogramak ezartzen du neurri edo jarduera hori 2009an ezarriko dela eta, halaber, jarduera hori gauzatzeko ez diola inolako kosturik ekarriko departamentu eskudunari.

Halaber, plan estrategikoan adierazten diren adierazleak dira, alde batetik, araudia onestea, eta, bestetik, eraturako batzorde kopurua eta batzorde horien aurrean aurkezturiko kasu kopurua.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan, planaren 1.1.7. jardueran aurreikusitakoari jarraikiz.

Iruñean, 2009ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Adingabearen Nafarroako Kontseilua sor dezan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Adingabearen Nafarroako Kontseilua sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 195, 196 eta 197. artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Adingabearen Nafarroako Kontseilua sor dezan.

Zioen azalpena

2008ko azaroaren 6an eta 7an, urte horretako Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida egin zen. Eztabaida horren ondorioz, zenbait erabaki proposamen onetsi ziren; horien artean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako proposamen bat onetsi zen, Nafarroako Foru Komunitateko adingabeen babesari buruzkoa.

Erabaki proposamen hark hiru puntu zituen, eta horietatik bigarrena nabarmendu nahiko genuke. Horrela zioen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Adingabearen Kontseilua sor dezan, Nafarroan adingabeekin lan egiten duten entitate eta elkarteek parte hartzeko foro gisa. Kontseiluaren helburuak honakoak izanen dira: haurrak babestearen arloko proposamenak behatu, aztertu eta egitea, objektibotasuna, profesionaltasuna eta independentzia abiapuntu gisa hartuta.”

Urtebete inguru iragan da Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, gizon eta emakume nafarren borondate demokratikoa ordezkatzeko duen erakundea den aldetik, erabaki proposamen hori onetsi zuenetik, eta, parlamentu-talde honek duen informazioaren arabera, gaur egun aipatu kontseilua ez dago eratuta. Hori dela eta, arrazoizkoa dirudi berriz ere Gobernua premiatzea Adingabearen Nafarroako Kontseilua sor dezan.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2008ko azaroaren 7an, Nafarroako

Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidan, hartutako erabakia bete eta 2010eko apirilaren 1a baino lehen Adingabearen Nafarroako Kontseilua sor dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar adina kreditu-lerro ezar ditzan bizibiderik gabeko familiei laguntzeko, konprometitutako beste kontusailletako finantzaketa murriztu gabe.**

### *ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adina kreditu-lerro ezar ditzan bizibiderik gabeko familiei laguntzeko, konprometitutako beste kontusailletako finantzaketa murriztu gabe.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak iragan urriaren 20an eginiko bilkuran, 2009ko bigarren hiruhilekora luza daitezkeen kreditu kontusailen erabilera izan zen aztergai, besteak beste.

Gizarte Gaietako Departamentuari dagozkion kontusailak aztertutik, ikusi dugu 10.692.490 eurotan handitu direla baliabide ekonomikorik ez duten familiei laguntzeko kontusailak, bai eta bazterkeria sozial egoeran dauden pertsonen, langabetuen, oinarritzko errenta jasotzen duten eta adineko pertsonen laguntzeari buruzkoak ere. Ikusten denez, Gobernuak inprobisazioz gutxienez jokatu du aurrekontua egiterakoan. Krisialdian murgilduta gaude erabat eta hori ez da aurreikusitua.

Harrigarria da ikustea zer kontusail baliatzen dituen Gobernuak kreditu-handitzeetan beharrezko horiek finantzatzeko eta aipatu kontusailen gastuak ordaintzeko.

Krisi egoera larri honetan, Gobernuak eta Departamentuek formularik eztabaidagarriena eta elkartasun gutxien adierazten duena hautatu dute. Gobernuarentzat, konponbidea da gaur egun ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen arretara bideratzen diren baliabide urriak murriztea. Ezgaitasunak dituzten pertsonen eta hondatze funtzionala duten adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzera –euskarri tekniko bidez eta haien ingurunea hobetuz– bideratutako baliabide urriak murrizten ari dira.

Nafarroako Ezker Batuak uste du ezin zaiela inolaz ere arretarik kendu mendekotasuna duten pertsonen, beharra daukaten beste pertsona batzuei emateko.

Logikak adierazten du gastu handitze hori finantzatu behar dela beharrezkoak ez diren beste gastu batzuk kenduta, hala nola lan eta azterketa teknikoak, alokairuak, komunikazioak eta gobernu-propaganda; edo, bestela, diruzaintzako garrantzitsuekin edo ezohiko kreditu baten bidez finantzatu behar direla. Are gehiago, bada unea

Gobernuak zalantzan jartzeko Sanferminen Museoa bezalako inbertsioak; halaber, zenbait kirol erakuntza utz daitezke aurrerako egiteko.

Kreditu handitzea behar duten kontusailen gaira itzuliz, "Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak" izeneko kontusaila ez da inolaz ere finantzatu behar "Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntza teknikoak eta mugikortasunerako laguntzak", "Adineko pertsonentzako laguntza teknikoak eta mugikortasunerako laguntzak" edo "Elbarri fisikoen mugikortasunerako laguntzak" izeneko kontusailetatik baliabideak kenduta.

Zenbat gauza aztertu behar dira:

- Edo aurrekontuaren betetzea eta Gizarte Gaietako Departamentuaren jardura geldirik daude eta ez dute asmorik aurrekontuan 2009rako jarritako dirua gastatzeko, eta hori salagarria litzateke ikuspuntu guztietatik. Horrekin lotuta, gogorarazi behar dira duela zenbait urte iragarri baziren ere oraindik gauzatu gabe dauden planak: Gizarte-bazterketaren aurkako II. Plana, Adineko Pertsonen buruzko Plana edo Plan Gerontologikoa eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen buruzko Plana. Bost urteko edo gehiagoko atzerapena dute hiru plan horiek.

- Edo, bestalde, gure ustez eztabaidaezinez diren laguntza teknikoak buruzko deialdien iruzurraren aurrean gaude.

Era berean, onartezina iruditzen zaigu 5 milioi eurotik gora kentzea ezgaitasunak dituzten pertsonentzako berariazko zentroak egiteko kontusailetatik, edota autonomia sustatzeko eta mendekotasuna duten pertsonen laguntza emateko, gizarte enplegu babesturako edo bizibiderik gabeko familiei laguntzak emateko kontusailetatik.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du behar adina kreditu-lerro ezar ditzan bizibiderik gabeko familiei laguntzeko, gizarte enplegu babesturako eta premiazko beste ekintza batzuetarako, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako berariazko zentroak egiteko eta autonomia sustatzeko eta mendekotasuna duten pertsonen laguntza emateko konprometitutako beste kontusailetakoa finantzaketa murriztu gabe.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du berriro azter ditzan inbertsioak egiteko zenbait deialdi, zioen azalpenean aipatutakoak edota landa eremuetako eguneko zentroetarako aurreikusitakoak (parlamentu-taldeei igorritako dekretuaren arabera) kasu, Nafarroako Ezker Batuak uste baitu nekez direla bideragarriak eta etxer etxeko laguntza dela landa eremuan laguntza emateko modurik egokiena.

Iruñean, 2009ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da lankidetzaren hitzarmen bat egin dezan IKArekin eta AEKrekin, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko egiten duten lana dela eta.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita lankidetzaren hitzarmen bat egin dezan IKArekin eta AEKrekin, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko egiten duten lana dela eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen bigarren artikuluko lehen idatz-zatiak ezartzen duenez, gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiak dute jakin eta erabiltzeko eskubidea.

Eskubide horretan sartzen dira helduen alfabetatzea eta euskalduntzea. Eginkizun hori, Nafarroako Gobernuak foru lurralde osoan garatu behar zuena, IKAREN eta AEKREN euskaltegiek egin dute azken berrogei urteotan.

Euskaltegi horiek jasotako dirulaguntza, ordea, % 40 murriztu da azken bederatzai urteotan.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzaz hitzarmen bat egin dezan IKAREkin eta AEKREkin, Nafarroan helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko egiten duten lana dela-eta, eta Uharteko Zubiarte euskaltegiarako ezarritakoaren gisa bereko zenbatekoa eman diezaien.

2. Nafarroako Parlamentuak jendaurrean aintzatesten du IKAREN eta AEKREN euskaltegiek azken berrogei urteotan helduak euskalduntze eta alfabetatze aldera egin duten lan handia.

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abal eta interesik gabeko edo mailegu publikoko lerro bat abiaraz dezan udalentsat.**

**NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abal eta interesik gabeko edo mailegu publikoko lerro bat abiaraz dezan udalentsat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta

hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nabarmena eta begi-bistakoa da udal askok arazoak dituztela aurre egiteko Nafarroako Gobernuarekin batera finantzaturako obren kostuak direla-eta udal bakoitzak ordaindu beharreko ehunekoei, ez baitute horretarako baliabide ekonomiko berekirik, hain gutxi krisi egoera honetan.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abal eta interesik gabeko edo mailegu publikoko lerro bat abiaraz dezan, udal Inbertsioen Lau Urteko Planean nahiz departamentuen jarduketan ondorioz esleitu zaizkien obretan konprometitu duten ehunekoari aurre egin ahal izan diezaioten.

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Arte Garaikideko Huarte Zentroan abian jarri nahi den proiektua zehatz dezan.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Arte Garaikideko Huarte Zentroan abian jarri nahi den proiektua zehatz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta onets dadin. Honen bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Arte Garaikideko Huarte Zentroari buruzko zenbait ekimen abiaraz ditzan.

Zioen azalpena

2007ko urriaren 30ean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak mozio bat aurkeztu zuen legebiltzarrean, zeinaren bidez

Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokor bat presta zezan eta plan horretan xede horretarako diren jardueren multzo osoa jasoko zedin. Ekimen hura aho batez onetsi zen, eta lau hilabeteko epea eman zitzaion Gobernuari plan hori aurkezteko.

Azterapenak metatzen zirela-eta talde honek behin eta berriro eskatu eta gero, aipatu plana 2009ko martxoaren 24an aurkeztu zen Kultura eta Turismo Batzordean. Planak sormen eta esperimentazio zentro bat aurreikusten zuen Arte Garaikideko Huarte Zentrorako (ondo ezagunak dira zentroaren sorrera eta bizitza gorabeheratsuak).

Halatan, plana onetsi zenetik zenbait hilabete igaro direnez, egoera azkar argitze eta desblokeatze aldera, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzeko eta onesteko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Arte Garaikideko Huarte Zentroan abian jarri nahi den proiektua argi eta garbi zehatz dezan.

2. Artearen arloko adituak eta profesionalak izanzen dituen patronatua izenda dezan.

3. Lehiaketa publiko bat egin dezan zentroaren jardunaz arduratuko den zuzendaria hautatzeko.

4. Proiektua Kultura eta Turismo Batzordean aurkeztu beharko da, batzordeak haren berri izan dezan eta azter dezan, 2010eko martxoaren 1a baino lehen.

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urteko txostenetan jaso ditzan laguntza teknikoaren eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita urteko txostenetan jaso ditzan laguntza teknikoaren eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, jabeldura batetik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Honen bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren urteko txostenetan jaso ditzan laguntza teknikoaren eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak.

Zioak

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldea kezkatuta dago proiektuak idazteko,

lanak esleitzeko eta obrak likidatzeko laguntza teknikorako kontratuen esleipenaren emaitza dela eta.

Azken urteotan, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak urteko txostena egiten du eginiko kontratuen esleipen eta likidazioei buruz eta Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordera igortzen du, honek azter dezan.

Zalantzarik gabe, ona eta egokia da Gobernuak jakinaraztea, alde batetik, egiten dituen kontratazioei buruzko datuak, eta, bestetik, kontratazio horien emaitzei buruzkoak, bereziki Herri Lan Departamentuak eginiko kontratazioei dagokionez; izan ere, jokamolde hori gastu publikoarekiko gardentasunaren seinale da.

Hala ere, datuak eskura izanda, txostena zehazki aztertu ahal izan dugu eta zenbait ondorio atera ditugu, Gobernuarekin egiaztatu eta eztabaidatu nahi genituzkeenak. Hain zuzen, horixe da mozio honen zio nagusia, eta espero dugu baliagarria izatea kontratazioaren arloko kudeaketa hobetzeko eta gastu publikoaren kontrol-maila handitzeko.

Mozioaren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren urteko txostenetan jaso ditzan laguntza teknikoaren eta obren esleipen-hartzaileei ordaintzen zaizkien zenbateko osoak eta kasuan-kasuan gertatzen den desbideraketaren ehunekoak, bereziki errepideen obrenak.

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba



**Erabakia. Horren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua premiatzen da lankidetzabide bat abian jar dezan Huescako Diputazioarekin, Nafarroan ere ezartzeko ondare kulturalaren informaziorako sistema bat.**

*VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko urriaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua premiatzen da lankidetzabide bat abian jar dezan Huescako Diputazioarekin, Nafarroan ere ezartzeko ondare kulturalaren informaziorako sistema bat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua premiatzen da lankidetzabide bat abian jar dezan Huescako Diputazioarekin, Nafarroan ere ezartzeko ondare kulturalaren informaziorako sistema bat**

Nafarroako Parlamentuak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua premiatzen du:

1. Lankidetzabide bat abian jar dezan Huescako Diputazioarekin, Nafarroan ere ezartzeko ondare kulturalaren informaziorako sistema bat, eta lankidetzabide hitzarmen bat sina dezan.

2. Aipatu hitzarmena sei hilabeteko epean sina dezan.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Abaunzko haitzuloaren sarbideak eta barnealdea txukundu ditzan eta neurriak har ditzan ager daitezkeen aztarnak behar bezala zainduko direla ziurtatze aldera.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko urriaren 20an egindako bileran, erabaki zuen Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Abaunzko haitzuloaren sarbi-

deak eta barnealdea txukundu ditzan eta neurriak har ditzan ager daitezkeen aztarnak behar bezala zainduko direla ziurtatze aldera".

Mozio hori 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Erroko tunelaren proiektuari buruzkoa.**

*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Erroko tunelaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Erroko tunelaren proiektuaren erredakzioa? Aurreikusitako epeen arabera ari al da egiten?

Iruñean, 2009ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

## **Galdera, Musikaren Plan Zuzendarirako kontusailari buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Musikaren Plan Zuzendarirako kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román

Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEk 2009rako hitzartutako Nafarroako aurrekontu orokorrean, gure parlamentu-taldeak hainbat zuzenketa aurkeztu zituen Musikaren Plan Zuzendaria izenburupean. Taldeek zuzenketa horiek onartu zituzten, eta aurrekontuan sartu ziren, plana Legebiltzarrera heldu bitartean. Hona kontusailak:

Nafarroako kultur etxeetan musika klasikoa zabaltzea: 100.000 euro.

Nafarroako taldeek musika klasikoa zabaltzea Tuterako, Lizarrako eta Zangozako auditorioetan: 75.000 euro.

2009ko irailaren 30ean, Gobernuak emandako erantzunaren arabera, ez zegoen ez erreserbatuta ez baimenduta bi kontusail horietako euro bakar bat ere. Jarduera horiek guztiak –parlamentu-talde honek idatziz eskatu behar izan du horiei buruzko informazioa, nahiz eta talde honen zuzenketa bat izan– urrian, azaroan eta abenduan egitekoak dira.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1. Kontusail eta jarduera horiek zergatik ez dira gauzatu 2009ko urrira arte?

2. Arrazoizkoa al da urte osorako kontusail bat azken hiruhilekoan soilik betetzea?

3. Nafarroako Gobernuak aukera emanen al du kontusail horiek jarraipena izan dezaten 2010eko aurrekontuan?

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Espainiako Arte Garaikidearen Institutuko profesionalak Nafarroako arte garaikideari buruz duten iritzari buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Arte Garaikidearen Institutuko profesionalak Nafarroako arte garaikideari buruz duten iritzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

2007ko urriaren 30ean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak mozio bat aurkeztu zuen Legebiltzarrean, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokor bat presta zezan eta plan horretan xede horretarako diren jardueren multzo osoa jaso zedin. Ekimen hura aho batez onetsi zen, eta lau hilabeteko epea eman zitzaion Gobernuari plan hori aurkezteko-

Atzerapenak metatzen zirela-eta talde honek behin eta berriro eskatu eta gero, aipatu plana 2009ko martxoaren 24an aurkeztu zen Kultura eta Turismo Batzordean. Bilkura hartan, gure taldeak ondoko bi galderak egin zizkion kontseilariari: norena da plana, taxutu duenarena ala Gobernuarena? irekiko al duzu iradokizunak aurkezteko epe bat, plana ez dadin Gobernuarena izan, ezpada parlamentu-talde guztiena? Lehenengo galderaren erantzuna izan zen Gobernuak beretzat hartzen zuela plana. Bigarren galdera erantzunik gabe gelditu zen.

Zenbait hilabete geroago, sektoreko zenbait profesionalak, Espainiako Arte Garaikidearen Institutuan (IAC) biltzen direnek hain zuzen ere, haien ustez Nafarroan arte garaikidea zertan den azaldu diote kontseilariari, eta eztabaida profesionala egin dadin eskatu dute, serioa eta adostua, jendaurreko diagnosi-foro bat, ondorioak ezagutzera emateko konpromisoarekin, IACek gisako beste ekimen batzuetan izandako esperientzia baliatuz.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1. IACeko ordezkariak zuzenean helarazi zioten bere iritzia Kultura eta Turismo kontseilariari aurtengo irailean. Nafarroako Gobernuak bat egiten al du Espainiako Arte Garaikidearen Institutuko profesionalen iritziarekin?

2. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik sektoreari parte hartzeko modua emateko, plana aurkeztu zenean sozialisten parlamentu-taldeak berariaz eskatutakoari jarraikiz?

3. Hala baldin bada, zer egingen du parte-hartze hori bideratzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Tecal 40 enpresa zenari buruzkoa.**

### *AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Tecal 40 enpresa zenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-

mentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Ikusita zein den enpresa-jardueraren egoera, bereziki Nafarroako erdialdean eta zehazki Tafallan eta haren eragin-eremuan, ondokoa jakin nahi dut:

Tecal 40 enpresa zena itxita dago, eta une honetan han ez da inolako jarduerarik. Zein da enpresa horren higiezinen egungo egoera? Horiekin zer egiteko asmoa dago?

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, jakiteko zertan diren Espetxeetako Erakundearekiko izapideak, Iruñeko espetxean mediku psikiatra bat egotea ziurtatze aldera.**

### *OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin Ion Erro Armendáriz jaunak aurkezturiko galdera, Iruñeko espetxean mediku psikiatra bat egotea ziurtatze aldera, Espetxeetako Erakundea-

rekiko izapideak zertan diren jakitekoa. Galdera hori 2009ko urriaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, jakiteko ea 2009. urtea amaitu aitzin elebitan errotulatu egonen den Baluarte.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea 2009. urtea amaitu aitzin elebitan errotulatu egonen den Baluarte, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea. Galdera hori

2009ko irailaren 25ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, “Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko sistema” izeneko kontusailari buruzkoa.**

### *IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, “Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko sistema” izeneko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko sistema” izeneko kontusailari buruzko galdera.

1. Kontusail horretako dirusarrerak zenbat igoko dira?

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Hogeita bost urte baino gutxiago izateagatik oinarrizko errenta ukatu den kasuei buruzkoa.**

**IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Hogeita bost urte baino gutxiago izateagatik oinarrizko errenta ukatu den kasuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

9/1999 Foru Legean ezarritako adin mugari buruzko galdera.

1. Zenbat aldiz ukatu da, 2009ko urtariletik aitzina, oinarrizko errenta hogeita bost urte baino gutxiago izateagatik?

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Zangozako zubi berriaren obrak hasteko eta bukatzeko aurreikusitako diren datei buruzkoa.**

**AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Zangozako zubi berriaren obrak hasteko eta bukatzeko aurreikusitako diren datei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Sanz jaunak ondokoa esan zuen inbestidura saioko hitzaldian:

“Herrialdeko komunikazioen garapen osoari dagokionez, eta abiaburua izanik Nafarroako Errepide-sareko Jarduerak Azkartzeko Planeko 29 jarduketak, orain abian direnak, Gobernu berriaren lehentasuna izanen da Errepideen II. Plan Zuzendaria burutzea, betetze-maila handiarekin hain zuzen ere, halako moduz non 2011rako bukatuko baitira Nafarroako autobia guztiak eta Belateko ardatza, eta 2010etik 2017ra bitarteko Plan Zuzendaria onetsiko da, horri esker egin ahalko baititugu

Iruñeko ingurabide berriak eta beste hainbat obra handi, esate baterako Lizarrako iparraldeko saihezbidea, Tafallako hegoaldeko saihezbidea, Zangozako zubi berria, Otsondoko mendatea berri-tzea, Tuterako hirugarren zubia eta Frantziarekiko lotunea, Erroko eta Mezkirizko tunelekin”

Hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Noizko dago aurreikusita hasiko eta bukatuko direla Zangozako zubi berriko obrak?

2. Non eraiki nahi da Zangozako zubi berria Aragón ibaian?

3. Halakorik baldin badago, Zangozako zubi berriaren proiektuaren edo aurreproiektuaren kopia jaso nahi nuke.

Iruñean, 2009ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

## **Galdera, ingurumen arloko arriskuei dagokienez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi dituen ekintzei buruzkoa.**

**AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, ingurumen arloko arriskuei dagokienez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi dituen ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Agerikoa da arto transgenikoa hazteak ingurumen-arriskuak eragin ditzakeela Nafarroako Foru Komunitatean. Zer egiteko asmoa du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak horren aurrean?

Iruñean, 2009ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak Adingabearen Nafarroako Kontseilua sortze aldera egin dituen jarduketei buruzkoa.**

*JAVIER MONZÓN ROMÉ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier Monzón Romé jaunak aurkeztutako galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak Adingabearen Nafarroako Kontseilua sortze aldera egin dituen jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romék, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2008ko azaroaren 6an eta 7an, urte horretako Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida egin zen. Eztabaida horren ondorioz, zenbait erabaki proposamen onetsi ziren; horien artean, Socialistas del Parlamento de Navarra

parlamentu-taldeak aurkeztutako proposamen bat onetsi zen, Nafarroako Foru Komunitateko adingabeen babesari buruzkoa.

Erabaki proposamen hark hiru puntu zituen, eta horietatik bigarrena nabarmendu nahiko genuke. Horrela zioen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Adingabearen Kontseilua sor dezan, Nafarroan adingabeekin lan egiten duten entitate eta elkarteek parte hartzeko foro gisa. Kontseiluaren helburuak honakoak izanen dira: haurrak babestearen arloko proposamenak behatu, aztertu eta egitea, objektibotasuna, profesionaltasuna eta independentzia abiapuntu gisa hartuta.”

Urtebete inguru iragan da Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, gizon eta emakume nafarren borondate demokratikoa ordezkatzeko duen erakundea den aldetik, erabaki proposamen hori onetsi zuenetik. Hori dela eta, arrazoizkoa dirudi Parlamentuak hartutako erabaki hori gauzatzeari buruzko informazioa eskatzea.

Egoera horren aurrean, hauexek dira gure galderak:

Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak eta, zehazki, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak Adingabearen Nafarroako Kontseilua sortze aldera?

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: José Javier Monzón Romé



## **Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak adingabeak babesteko baliabideak handitze eta hobetze aldera egin dituen jarduketei buruzkoa.**

*JAVIER MONZÓN ROMÉ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier Monzón Romé jaunak aurkeztutako galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak adingabeak babesteko baliabideak handitze eta hobetze aldera egin dituen jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romék, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2008ko azaroaren 6an eta 7an, urte horretako Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida egin zen. Eztabaida horren ondorioz, zenbait erabaki proposamen onetsi ziren; horien artean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako proposamen bat

onetsi zen, Nafarroako Foru Komunitateko adingabeen babesari buruzkoa.

Erabaki proposamen hark hiru puntu zituen, eta horietatik hirugarrena nabarmendu nahiko genuke. Horrela zioen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egun foru erkidegoan adingabeak babestearen eta onbideratzearen arloan dauden baliabideak zabaltzeko eta hobetzeko, koordinazio-tresnak optimizatzeke eta arlo honetan foru erkidegoan garatzen diren politikak ebaluatzeke sistemak hobetzeko.”

Urtebete inguru iragan da Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, gizon eta emakume nafarren borondate demokratikoa ordezkatzeko duen erakundea den aldetik, erabaki proposamen hori onetsi zuenetik. Hori dela eta, arrazoizkoa dirudi Parlamentuak hartutako erabaki hori gauzatzeari buruzko informazioa eskatzea.

Egoera horren aurrean, hauexek dira gure galderak:

Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak eta, zehazki, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak egun foru erkidegoan adingabeak babestearen eta onbideratzearen arloan dauden baliabideak zabaltzeko eta hobetzeko, koordinazio-tresnak optimizatzeke eta arlo honetan foru erkidegoan garatzen diren politikak ebaluatzeke sistemak hobetzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: José Javier Monzón Romé

## **Galdera, Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoarekin Iruñeko espetxeko hezkuntzari buruz sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren jarraipena egiteko batzorde mistoari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoarekin Iruñeko espetxeko hezkuntzari buruz sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren jarraipena egiteko batzorde mistoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, idatzizko erantzuteko:

Zioen azalpena

Espetxe erakundeetako oinarrizko hezkuntza orokorreko irakasleak Nafarroako Foru Komunitatearen mende egotera pasatzeari buruzko abuztuaren 4ko 1476/2000 Errege Dekretua indarrean sartu zenetik –Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza gaietan Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzen dituen abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuaren bidez eginiko eskualdatzea zabalduz–, zenbait foru agindu eta arau eman dira, bai Estatuan bai foru erkidegoan, helduen oinarrizko hezkuntzari buruzkoak, eta, hala, matriculazioa, zentroetan sartzeko, ebaluazioa eta zentroen antolamendua eta funtzionamendua arautu dira.

Martxoaren 18ko 126/2003 Foru Aginduaren bidez ezarri zen Nafarroako Foru Komunitateak

eta Espetxeetako Lan eta Prestazioen Erakunde Autonomoak Iruñeko espetxeko hezkuntzari buruzko lankidetzaren hitzarmena.

Foru agindu horretan, xedeari buruzko bigarren klausularen bigarren idatz-zatian, adierazten denez, Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Departamentuak ondoko konpromisoak hartzen ditu: “Bere eraginpeko eremuan dagoen espetxearen hezkuntza zerbitzua ematea Nafarroako Foru Komunitateko helduendako heziketa planen bitartez, espetxeratuen behar eta berezitasunak kontuan harturik.”

Hirugarren klausulan esaten denez, hitzarmenaren jarraipenerako batzorde misto bat eratuko da, espetxe antolamenduko eta Nafarroako Gobernuaren ordezkariak osatua. Batzordea urtean bitan elkartzeko da gutxienez, ikasturtearen hasieran eta bukaeran, eta, orobat, alderdiren batek beharrezkoa ikusten duen guztietan.

Administrazioak hartutako konpromisoa, oro har, egokia eta luzatuko den lan interesgarria egitera bideratua dirudi; hori dela eta, hau jakin nahiko nuke:

- Osatu al da Iruñeko espetxeko hezkuntza gaiari buruz Nafarroako Foru Komunitateak eta Lan eta Espetxe Prestazioetarako Erakunde Autonomoak eginiko lankidetzaren hitzarmenaren jarraipenerako batzorde mistoa?

- Noiz osatu da?

- Nork izendatu zituen Nafarroako Gobernuak batzorde horretan dituen ordezkariak?

- Zenbat bilera egin ditu batzordeak?

- Nork osatzen du batzordeak?

Hitzarmenaren jarraipena egiteko batzordea ez bada osatu, hau jakin nahiko nuke:

- Zergatik ez da osatu?

- Ba al dago batzordea osatzeko asmorik?

Iruñean, 2009ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Leringo Udalak 173 zuhaitz moztu izanari buruzkoa.**

**MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Leringo Udalak 173 zuhaitz moztu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

1. Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al daki Leringo Udalak 173 zuhaitz bota dituela –24 zumar, 84 Aleppo pinu, 25 Arizonako pinu eta 40 *ailanthus*–?

2. Ba al du Sepronan aurkeztutako salaketaren berri? Eta ba al daki salaketa horrek ondoriorik izan duen?

3. Gobernuak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren bidez, ireki al du gai horri buruzko espedienterik? Hala bada, zein egoeratan dago haren izapidetzea? Ez bada izapidetu, zein izan da arrazoia?

Iruñean, 2009ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas

